

Kazetaritza konprometitua hauteskunde -testuinguru batean_



Kazetaritza konprometituaz hitz egitean, albistearen erdigunean pertsonarik ahulenak jartzen dituen, gaietan sakontzen duen eta printzipio etiko batzuetatik abiatzen den ikerketa-kazetaritza batez ari gara.

Euskal kazetariak gai hauen inguruan gogoeta egiteko gunee bat eskaini nahi dugu:

- Kazetaritza konprometitua eta herritarrak. Herritarrak informazio jakin bat eskatzen die hedabideei ala haiek eskaintzen diotenarekin konformatzen da? Hedabideak bitartekari gisa, botere publikoen zaintza eta herritarren eginkizuna.
- Zer eginkizun duten hedabideek, iritzi publikoaren sortzaile gisa, krisiaren eta desparekotasun handien testuinguru honetan. Hedabideek istorioak kontatzen dituzte, eta aurpegia jartzen diete egoera honen ondorioei. Ba al dute konpromisorik desparekotasun hau sortzen duten kausak ikusgai jartzearekin eta aldaketa posible egingo duten irtenbideekin?
- Abenduaren 20ko hauteskunde orokorren aurrean, zer rol jokatzeko dute hedabideek?; noren zerbitzuan daude?; zer gai izango dira garrantzitsuenak?; nork jartzen ditu gai horiek lehen orrietan?
- Asmoa da mahai-inguruko kideekin elkarrizketa bat izatea gai horiekin lotutako galdera batzuetatik abiatu, beren ikuspegia azaldu dezaten eta elkarri erantzun diezaioten.

Horren ondotik, eztabaida-txanda bat irekiko dugu gainerako entzuleek galderak eta iruzkinak egin ditzaten.

Gonbidatutako kazetariak:

África Baeta, ETBkoa.

Begoña Beristáin, Onda Vasca.

José María Reviriego, El Correo.

Aloña Velasco, Cadena Ser.



ALBOAN

Jesuitek sortu eta bultzatutako Fundazioa



OXFAM
Intermón



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

